

Azpikontratazioaren sektorearen garrantzitsu ekonomikoa



USKO GANBERAK-CÁMARAS VASCAS eta Eusko-Nafar Aurrezki Kutxen Federazioak duela gutxi egindako azterketa batek %27an jartzen du azpikontratazioaren sektoreak euskal industria jarduerari egiten dion ekarpena.

Datu honen garrantzia ez datza kopuruaren handitasunean bakarrik. Izan ere, aurreneko aldiz, zehaztasunez neur genezake azpikontratazioaren sektoreak Euskal Autonomia Elkargoko ekonomiaren osotasunean adierazten duena. Orain arte, enpresa erakundeek sumatu baizik ez zuten egiten sektore hau garrantzitsua zela euskal ekonomiarentzat, baina azterketa honen aurkezpenak, azpikontratazioaren ekarpen handia frogatzeaz gainera, modu bikainean estali du datuen hutsune hau.

Industriako azpikontratazioa ez da ohiko ekonomia estatistiketan jasotzen, batez ere enpresaren jarduera lantzen baitute estatistika horiek. Baina jardueraren antolamendu mota hau egunetik egunera dela garrantzitsuagoa aitortzen da, zeren Euskal Herriko enpresa eta langile kopuru gero eta handiago hartzen baitu, eta Gipuzkoan bereziki, bertan oso handia baita azpikontrataziozko industrien dentsitatea eta espezializazioa; hain zuzen ere, Gipuzkoako industria jardueraren laurden bat.

Azterlan honek benetan duen garrantzia itzultzen dio sektore honi, eta analisiaren bidez egiten du hori. Alabaina, ez dira datuak bakarrik eskaintzen. Aldi berean sektorearen erradiografia bat egiten da, hainbat alderdi azpimarratzen baitira, adibidez, nolako aukerak eta nolako eragozpenak dauden, aurrekontuaren ze parte eskaintzen zaion ikerketari eta garapenari, nolako neurria duen, edota informazioaren teknologiak ekokitzeari dagokionez zein unetan dagoen, beste askoren artean.

Era horretan, Gipuzkoako Bazkondeak, berriz ere, oso argi erakutsi du gure Lurralde Historikoko enpresa garapena babesteko desira, oraingo honetan azpikontratazioaren jardueran zentratuz, zeina oso sektore espezializatua baita, kalitate maila frogatua duena. Industria azpikontratazioak, gainera, kanpoan ere eginkizun garrantzitsua betetzen du gure enpresa sarearen irudi ona eskainiz, gure lurraldea esportatzailea izan baita tradizioz. Horri dagokionez, txostenak Europan kokatzen du azpikontratazioaren balizko merkata, horixe baita gure inguru hurbilena, eta garraioa azpimarratzen du lehiakortasunaren faktore erabakigarria delakoa.

Azpikontratazioaren sektorearen analisia egin ondoren eskuratu diren emaitzek agertzen eta oinarritzen dute Gipuzkoako Bazkondeak aspalditik egiten duen babes lan handia. Horren adibidea da enpresek munduko azoketan parte har dezaten antolatzen dituen ekimenak. 2003ko urte honetan, mundu osoan sektore honetako hitzordurik garrantzitsuenan, hau da, Pariseko Midest Azokan, parte hartzea bultzatuko du Bazkondeak. Era berean, Bilboko Azokan gipuzkoarren parte hartzea ere antolatuko du. Eusko Ganberak plangintzaren baitako bi ekimen dira; plangintza horren arabera, gipuzkoarrek Europako beste sei azoketan eta Estatu Batuetako bitan parte hartuko dute.


Gipuzkoako Bazkondeak erabiltzen duen beste sustapen tresna bat azpikontratazio enpresa nagusiak ageri diren katalogo bat argitaratzea da; negozio aukerei buruzko informazioa ere ageri da bertan. Azpikontratazaileek asko erabiltzen duten zerbitzu bat da hau, zeren milatik gora kontsulta erregistratu baitira. Azpikontrataziozko alderantzizko eginkizunak dira sektore hau sustatzeko beste tresna bat. Tresna horren bitartez, erosleek, Gipuzkoako Bazkondeak gonbidaturik, gure Lurralde Historikoa bisitatzen dute, euskal enpresa azpikontratazaileekin harremanetan jartzeko.

Zerbitzu hauek guztiak, Gipuzkoako Bazkondeari dagokionez, gure Lurralde Historikoa lehiakortasun mailarik hoberenetan jartzeko apustu sendoa dira. Aski arrazoi da horretarako sektore honek euskal eta gipuzkoar ekonomian duen garrantzia.



Edita: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Gipuzkoa
Pº Ramón Mª Lili, 6 20.002 - San Sebastián

Diseño, ilustración, infografía y maquetación: F.J. BIENZOBAS, Servicios Infográficos • 943 454 899



La importancia económica de la subcontratación

AN estudio realizado recientemente por Eusko Ganberak – Cámaras Vascas y la Federación de Cajas de Ahorro Vasco Navarras, cifra en un 27% la aportación del sector de la subcontratación a la actividad industrial vasca.

La importancia de este dato no reside sólo en su elevada cuantía, sino en que, por vez primera, podemos cuantificar con exactitud lo que representa el sector subcontratista en el conjunto de la economía de la Comunidad Autónoma Vasca. Hasta ahora, las organizaciones empresariales tan sólo intuían que este sector era importante para el desarrollo económico vasco, pero la presentación de este estudio ha cubierto profusamente esta carencia de datos, además de demostrar la elevada aportación de este sector.

La subcontratación industrial no se recoge en las estadísticas económicas usuales centradas en la actividad que desarrolla la empresa. Pero se reconoce que este tipo de organización de la actividad es cada día más relevante ya que involucra un número creciente de empresas y efectivos en el País Vasco, y en especial en Gipuzkoa, por contar con una elevada densidad y especialización de las industrias subcontratistas y representar una cuarta parte de la actividad industrial.

El estudio devuelve al sector la importancia que realmente tiene, y lo hace mediante el análisis. Es decir,

no se trata únicamente de ofrecer datos, sino que también realiza una radiografía del sector, al incidir en aspectos como cuáles son sus oportunidades e inconvenientes, qué proporción de su presupuesto dedican a la investigación y desarrollo, cuál es su tamaño, o en qué momento del proceso de adaptación a las tecnologías de la información se encuentra, entre otros muchos.

De este modo, la Cámara de Gipuzkoa cumple una vez más su clara vocación de apoyar al desarrollo empresarial de nuestro Territorio Histórico, esta vez centrada en la actividad subcontratista, un sector muy especializado y con un contrastado nivel de calidad. La subcontratación industrial, además, contribuye activamente a propagar una buena imagen de nuestro tejido empresarial en el exterior, dado su tradicional espíritu exportador. A este respecto, el informe sitúa en Europa su mercado potencial, por ser un entorno más cercano, y al transporte como factor decisivo en su competitividad.

Los resultados obtenidos tras el análisis del sector subcontratista explican y fundamentan la intensa labor de apoyo que realiza desde hace años la Cámara de Gipuzkoa. Un ejemplo de ello es la organización de la participación de empresas en ferias mundiales. Durante este año 2003, la Cámara promoverá la asistencia empresarial a la cita más importante del sector a nivel mundial, la Feria Midest de París. Asimismo, organizará la presencia guipuzcoana en la Feria de Bilbao. Son dos actuaciones englobadas en el plan de Eusko Ganberak, que contempla también la organización de la participación empresarial en otras seis ferias europeas y dos estadounidenses.

Otro instrumento de promoción utilizado por la Cámara de Gipuzkoa es la edición de un catálogo en el que figuran las principales empresas subcontratistas, así como la información que se les ofrece sobre oportunidades de negocio. Se trata de un servicio muy utilizado por los subcontratistas, ya que las consultas registradas superan el millar. Las misiones inversas de subcontratación es otra de las herramientas de impulso al sector. A través de él, compradores visitan nuestro Territorio Histórico invitados por la Cámara de Gipuzkoa, para contactar con empresas subcontratistas vascas.

Todos estos servicios suponen, por parte de la Cámara de Gipuzkoa, una decidida apuesta por situar a nuestro Territorio Histórico en óptimos niveles de competitividad. Su peso específico en la economía vasca y guipuzcoana lo justifica.

